

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2012ko azaroaren 27a. IX. urtea. 2.440. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

Perurenak «beste era batera» egingo du hurrengo marka saiakera

300 kiloko marka saiakeran urduritasuna gailendu zitzaion Inaxio Perurena harri jasotzaileari; laster ahaleginduko da berriz 07



Perurenari harria erori zitzaioneko unea. JONE AMONARRIZ



→ **Euskara 'Ahora!' eramateko deia.** Ostiralean ezagutarazi bazituzten ere, Kilometroak 2013ko leloa eta logoa Leidor gainezka zela, *Ahora!* leloa atzo zabaldu zuten Euskal Herri osora. Mezu «zirikatzailea eta ausarta» aukeratu dute, eta euskararen erabilera sustatzeaz gain, egoera ekonomikoari aurre egin nahi diote. 03

Adunako auzo konpostaje gunea eredu izango da eskualdean

Ostegunean inauguratu zuten duela bi hilabetetik martxan dagoen organikoak kudeatzeko gunea 02

Emakumeen omenez Emakumeon Plaza inauguratu dute, Tolosan

Indarkeria sexistaren aurka egiteko hamaika ekitaldi burutu dituzte eskualdeko hainbat herritan 04

Zizurkilgo Udalak parte hartze bidez egingo ditu aurrekontuak

2013ko aurrekontuak prestatzen hasi da udala, eta bihar egingo dute lehenengo bilera irekia 02

FUNERARIA VASCONGADA EHORZKETAK
 902 402 900
www.funerariavascongada.com

TOLOSA
 Kondoko Aklaga, 5
 943 - 67 00 40

VILLABONA
 Larrea Polg., 34 - 1
 943 - 69 48 73

LAGUN ARO GBC
Caja Laboral
 saskibaloia partida

HITZAK harpidedunentzat **2 sarrera** ditu

Abenduak 2 • Igandea
 12:15
 Donostiako Ilunben

Zozketan parte hartzeko deitu osteguna 14:30ak baino lehen **943 65 56 95** telefono zenbakira.



Iñaki Errazkin, Iosu Amilibia eta Eneko Maioz Adunako auzo konpostaje gunearen aurkezpen ekitaldian. E.MAZ

Auzo konpostaje gunearekin «oso gustura» daudela azaldu dute adunarrek

Herritarrekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta eskualdeko udal ordezkariak egon dira

Asier Imaz Aduna

Adunako auzo konpostaje gunea inauguratu zuten iragan ostegunean. Aurkezpen ekitaldian, herritarrekin batera, Gipuzkoa eta eskualdeko hainbat ordezkari egon ziren. Iosu Amilibia alkateak, esker oneko hitzak izan zituen guztiarentzat: «Inaugurazio ekitaldia deitu diogu, baina bi hilabete daramatza martxan auzo konpostaje guneak. Orain arteko esperientzia nolako izan den azaldu nahi dugu orain».

Balantzea egiteko, egokiena herritarrei hitza ematea zela pentsatu zuen alkateak, eta hauek lehen pertsona kontaktatu zuten auzo konpostajearen esperientzia: «Udalak ekimen honetan parte hartzeko aukera eskaini zigun bizilagunoi. Kutsadurarekin eta hondakinekin kezkatu

geundenez, aurrera egitea erabaki genuen. Esfortzu bat eskatzen zuela pentsatu genuen, baina horretarako prest agertu ginen».

Aurkezpen ekitaldian hitz egin zuten herritarren esanetan, hasierako zalantzak eta kezkek lekuz kanpo gelditu ziren praktikarekin: «Ez du inongo esfortzurik eskatzen. Usainaren beldurra ere bagenuen, baina lehen baino usain gutxiago izaten dugu orain etxeetan. Prozesua oso erraza da, gainera. Nahi dugunean etortzen gara gune honetara, baldea hustu eta lehorrarekin nahasten dugu. Ondoren baldea urarekin pasa eta etxera. Oso praktikoa da». Beste ezaugarri bat ere azpimarratu nahi izan zuen bizilagunak: «Organikoa botatzean, etxean oso zabor gutxi gelditzen zaizula konturatzen zara». Esperientziarekin gustura agertzeaz gain, oso gomendagarria dela gaineratu zuten auzo konpostaje guneko erabiltzaileak.

Iosu Amilibia alkateak gizarte hobeago bat edukitzeko urrats bat eman dutela azaldu zuen jarraian: «Ez bakarrik ingurugiroari begiratuta, baita ekonomiko-

ki eta osasun ikuspegitik ere». Puntu honetan, herritarren parte hartzea azpimarratu zuen Amilibiak: «Organikoa herrian tratatu nahi genuen, eta urte hasieran lanean jarri ginen. Herri batzarrak egin genituen, eta hortik, Hondakin batzordea sortu genuen. Zortzi herritar aritu gara bertan lanean, konpostaje modu desberdina aztertzen. Proba bezala, irailan auzo konpostaje gunea jarri genuen martxan, eta emaitzekin oso gustura gaude».

Eskualdeko Zabor Mankomunitateko ordezkariak, Eneko Maiozek, adunarrak zoriondu nahi izan zituen, aitzindari eta eredugarri izateagatik. Mankomunitate mailan erreferenteak izan direla aitortu zien ekitaldian bildutako herritarrei. Iñaki Errazkin Gipuzkoako Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketa diputatuak, Gipuzkoa gutzira zabaldu beharreko ereduaz hitz egin zuen, herritarrek zoriontzearrekin batera. Hondakinen arazo konpontzeko, instituzioek azpiegiturak jarri behar dituztela esan zuen, baina irtenbidea herritarren esku dagoela onartu zuen. Kutsadura sortzen duten tximinietatik urrun, herrietara aberastasuna ekartzen duten ereduak defendatu zituen Errazkinek.

↓ Iragarki laburrak

LAN ESKAERAK

Etxeko lanetarako. Etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa badauka. Deitu 943 696882 edo 606 521992 telefono zenbakietara.

Aurrekontuak herritarrekin egin nahi ditu udalak

Parte hartze prozesuan urrats bat gehiago eman nahi du Zizurkilgo Udalak; bihar bilera irekia egingo dute

A. Imaz Zizurkil

Zizurkilgo Udala 2013ko aurrekontuak prestatzen hasi da. Herritarren laguntzarekin osatu nahi ditu zenbakiak, eta horretarako, aurrekontu parte hartzaileak egiteko, bilera irekia egingo du Atxulondo kultur etxean, bihar, 19:30ean.

Parte hartzean oinarritutako aurrekontuak egitea, eronka bat dela onartu du Nerea Lizarraga alkateordeak: «Iaz ez genuen denborarik izan, udalean sartu berriak ginen, eta zenbakiak ulertzen nahikoa lan izan genuen. Hala eta guztiz ere, herritarren iritziak biltzen saiatu ginen. 2013ko aurrekontuei begira, konpromiso bat hartu genuen. Bada-kigu zerotik ehunera pasatzea utopia bat dela, baina planteatu dugun prozesuarekin urrats handi bat eman nahi dugu».

Lizarragaren iritzi, zizurkildarek ez dute prozesua jarraitzeko zailtasunik izango; herritar guztiak neurrira egiten saiatu dira parte hartze prozesua: «Hilaren 28an hasiko gara batzar ireki batekin. Bertan, aurreko urteko aurrekontuak nola joan diren aztertuko dugu, eta datorren urterako irizpide batzuk zehaztuko ditugu, batez ere lehenetsiak ezarriko ditugu».

Biharko herri bileratik irtetzen diren oinarriak herritar batzorde- etara eramango dituzte. Batzorde horietan, bilera irekiak deituko dituzte, herritarrek euren gustuko saila aukera dezaten. Batzar horietan, atalez atal zehaztuko

dira sail bakoitzari dagozkion aurrekontuak. Behin lanketa hori eginda, udal taldera itzuliko dira zenbakiak. Bide hau, joan etorrikoa izango da. Udalak bere zehaztapenak egin ondoren, berriro herri batzordeetara bideratuko baititu sailletako aurrekontuak. Hemendik hasiera puntura joango dira, hau da, herri batzarrerara. Herritar guztiak bertan aurkeztuko zaizkie 2013ko Zizurkilgo aurrekontuak.

Nerea Lizarraga alkateordearen esanetan, udalak gaiari garrantzi handia ematen dio, izan ere, hurrengo urtean Zizurkilaren zer nahi den esateko momentua iritsi da. Horretarako, herritarrekin kontaktzea ezinbestezatzotzen du Lizarragak, eta udalaren apustua hori izango dela gaineratu du.

Logo eta lelo berria

Leire Zubeldia Komunikazio eta parte hartze batzordeko zinegotziak *Berregiten* ekimena aurkeztu du. Parte hartzearen leloa izango da *Berregiten*, eta bere logoa izango du: bi laia. Udalak bultzatuko dituen parte hartze prozesuetan agertuko da lelo eta logo berria, aurrekontu parte hartzaileekin hasita: «*Berregiten* hitzaren lehen *r*-a alderantziz dago. Horrekin, Zizurkil berriz egin nahi dugula adierazi nahi da, irauli egin nahi dugula, gauzak beste era batera eginaz. Logoan, aldi, bi laia agertzen dira; baserrian erabiltzen diren tresnak dira, lurrira iraultzeko. Laiak bi hortza ditu, udala eta herritarrek, eta elkarlanean irudikatuta nahi dira».

Aurrekontu parte hartzaileak egiteko egingo diren batzarren deialdiak, logo eta lelo berriarekin joango direla azaldu du Leire Zubeldiak. Azkenik, Lizarragak egin bezala, herritarrei batzarrerara agertzeko eskatu zien.



Zubeldia eta Lizarraga, aurrekontu parte hartzaileak aurkezten. E.M.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Jone Urteaga, Joxan Oiz, Arantxa Manterola, Unai Igartua eta Eñaut Telleria, Kilometroen aurkezpenean. I. URKIZU

Euskara bihotzetik 'Ahora!' eramanez, erabilera sustatuko du KMK 13k

Laskorain ikastola lau lerroko ikastetxe izatera pasa da, eta «behar horiei erantzuna eman» nahi diete arduradunek

Itzea Urkizu

Euskararen erabilerearen esparrua astintzeko helburuz, eta «euskara hitz egiteko garaia» badela aldarrikatuz, *Ahora!* izango da, datorren urriaren 6an Tolosan ospatuko duten Kilometroak festari izena emango dion leloa.

Pasa den ostiralean Tolosan aurkezpen jaialdia izan zen arren, atzo plazaratu zizkieten Laskorain ikastolako zuzendari Jone Urteagak, Laskoraingo lehendakari Joxan Oizek, Ikastolen Elkarte Arantxa Manterolak, Kilometroak 2013ko koordinatzaile Unai Igartuak eta Kilometroetako koordinatzaile orokorra den Eñaut Telleriak, Euskal Herriari, KMK 13ren inguruko nondik norako nabarmenenak, Ikastolen Elkartearen Gipuzkoako egoitzan.

Besteak beste, lau helburu nagusi betetzeko asmoz lanean ariko dira urte osoan, Joxan Oiz lehendakariak azaldu zuenez. Batetik, helbururik oinarritzekoena aipatu zuen, ekonomikoa: «Azken urteotako matrikulazioek eragindako hazkundera erantzun egokia emateko asmoz, ikastolak Tolosako Sakramentinoetako lur eremu erosi, eta hamar ikasgela dituen eraikina amaitu zuen ia». 1.539 ikasle ditu, aurrean, Laskorain ikastolak, eta

«inor kanpoan uzteko asmorik ez du Laskorainek», azaldu zuten. Hau dela eta, lau lerroko ikastola bilakatu nahi dute Laskorain, maila guzti-guztietan. Erroka, beraz, ekonomikoa izango da, batetik.

Erroka pedagogikoa ere izango da jomugen artean, izan ere, Laskorain ikastolak euskarazko ikas-irakaskuntzan izandako erreferentzialtasuna aldarrikatzeko ere baliatuko dute Kilometroak jaia: «Izandako emaitza baikorrek eskualdeko euskalgintza eta irakaskuntza alorreko eragileekin elkarbanatu nahi ditugu».

Orain arte egindakoa hedatzeaz haratago, ordea, Laskorain ikastolak «beste pauso bat emateko egokiera» aprobetxatzeari garrantzia eman dio, eta pauso hau euskararen presentzia eta erabilera eman nahi dute: «Euskararekiko jarrera eta euskararen jakintza esparruak sistematikoki zabaltu nahi ditugu, erabilera sustatuz eta bermatuz».

Azkenik, helbururik ludikoenari ere egin zion aipamenik Oizek, eta Kilometroak jaia euskararen festa izan behar duela nabarmendu zuen: «Ondo pasa nahi dugu eta euskaltzaleek gozatzea nahi dugu».

Mezu «zirikatzailea»

Unai Igartua KMK 13ko koordinatzaileak azaldu zituen, aurkezpenean, leloaren ingurukoak.

«Zirikatzaila eta ausarta» dela dio, eta mezu argia transmititzen duela: «Euskara ahora ekarri behar da, erabilera behar du euskarak». Izan ere, azken urteotan euskararen jakintzaren igoera-

ren aurrean, erabilera igoera bera ez izatea azpimarratu dute.

Bestalde, leloak, irakurri eta erdarazko hitza gogora ekartzen duela ikusteak «zer pentsatua ematen du», Igartuaren ustez.

Honegatik guztiagatik, euskara ahora ekarri behar dela aldarrikatu zuen: «Bihotzetik, ametsetatik, burutik, txokoetatik, apaletatik, ikasgelatik, museoe-

tatik, gramatikatik, liburuetatik, teoriatik ahora ekarri behar dugu euskara, hitz egiteko garaia badelako».

1967an hasitako bidea

Jone Urteaga Laskorain ikastolako zuzendariak, ikastolak 1967. urtean hasi zuen ibilbidea gogora ekarri zuen. Lizardi Euskal Kultur Elkartearen babes juridikope-

an sortu zuten zenbait herritarrek, eta orduko kokapenak eman zion izena. Haur hezkuntzako irakaskuntza hasi ziren, eta 3 andereño 80 ikasleekin aritzen ziren hastapen haietan, herritarren diru-laguntzaz.

Bigarren ikasturterako, 130 ikasle zituen jada Laskorainek, eta zehaztuak zituzten eskaini nahi zuten irakaskuntzaren oinarriak: «Irakaskuntza euskaraz, euskal kulturaren, herriaren eta naturaren errotutakoa zen», azaldu zuen Urteagak.

Gaur egun, herri onurako izendapena du Laskorainek, eta guraso elkarte kooperatiba da, 1976az geroztik. Gainera, 2009an Euskal Herriko Ikastolen Elkarte Europar Kooperatibako kide izatera pasa zen Laskorain. Urteagak, Euskaraz Bizi proiektuarekin Laskorainek eskuratu zuen aitzindaritasuna nabarmendu zuen: «Gure hezkuntza eskaintza gizartearen eskaera berriei erantzuteko ere egokitu beharrean ginen, euskaldun izanaz eta nortasuna galduta gabe. Horrela, Europa begira jarri ginen, teknologia berrietan trebatuz eta kalitatezko hezkuntza eskainiz. Eta batez ere, eskolaz kanpoko esparruak euskalduntzen hasi ginen».

Aurretik egindako Kilometroak jaia ere hizpide izan zituen Jone Urteagak. 1980an ospatu zuten lehena, eta Usabaleko lehen eraikina finantzatu zuten. 1998. urtean, berriz, Ibarra, Anoeta eta Iruako ikastolekin bat eginik antolatuta zuten Kilometroak; bigarren hezkuntzako eraikin berriak lehengo txabolak ordezkatzeko balio izan zuen festa hark.

1.600 pertsona baino gehiago euskara ahoratzeke prest

Pasa den ostiralean KMK 13 aurkezteko Leidorren egindako jaialdiko bi saiok bete zuten aretoa

I. Urkizu

Goraino bete zen Leidor aretoa, pasa den ostiralean, 2013ko Kilometroak aurkeztu zuen jaialdiko bi saioketan. 120 lagun inguru aritu ziren oholatza gainean, eta ikusleak, berriz, 1.600etik gora izan ziren.

Umorez jositako esketxak ez ziren falta izan, eta ikuslegoari barre algarak lapurtu zizkieten Laskoraingo zenbait irakaslek, aktore lanetan.

Arropa, berriz, desfileen bitartez erakutsi zieten bertaratuei. Haurrak eta gaztetxoak aritu zi-



Hainbat irakaslek parte hartu zuten esketxetan. I. URKIZU

ren alde batetik, txarangaren musikalaz lagundurik. Helduek, berriz, pasarelarik profesionalenak imitatu zituzten.

Azkenik, dantza, bideo eta ikas-

tolako arduradunen zenbait hitzez haratago, *Ahora!* leloaren aurkezpenak zutik jarri zituen ikus-entzuleak.

tolosa@hitza.info

Emakumeon Plaza inauguratu dute

«Indarkeriak hildako eta borrokan jarraitzen duten emakumeen omenez» jarri dio Tolosako Udalak izen berria plazari

Emakumeen Aurkako Indarkeria salatzeke eginiko flashmobak harrera ona izan du

Iñigo Terradillos Tolosa

Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Aurkako Eguna izan zen herenegun. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean oraindik ere asko dagoela egiteko eta parekidetasunari inisteko gizaritoki bat egirik lanean jarraitu behar dela. Men hori zaharitu zuten larunbatean Tolosan.

Izan ere, larunbatean egin zituzten Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Eguna orotzeko ekitaldiak. Horietako bat, Emakumeon Plazaren inaugurazioa izan zen. «Indarkeria matxistaren emaguzer hildako emakumeen eta borrokan jarraitzen duten emakumeen omenez» jaso du izen berri. Tolosako herriaren goi-eremuko tren geltokiaren aldamenean kokaturik, herriko puntu beltzetako bat zen hau, eta Ibai Iriarte alkateak adierazi bezala, «gure argi eta seguruagoa da gaur egun».

Tolosan eraildako azken hiru emakumeen sentirtekoak ere izan ziren plazaren inaugurazio ekitaldian: 2005an Durangon hildako Iasaskin, Jimenez, 2010ean

Tolosan hil zuten Elena Cal eta aurten hil duten Caridad Rodrigoz. «Denbora gutxiari pertsona gehiegi joan zaitzigu biolentzia matxistaren ondorioz», adierazi zuen Iriartek. «Euskal Herrian aurten 5 emakume hil dituztute, eta mila dira salaketak jartzen dituztenak eta beste asko salaketa jarri gabe isilpean sufizitzen ditena». Era berean, Espainiako gobernuaren azken erabakiaren gaitzeko salaketa ere egin zuten, «justizia ordaindu egin behar delako, eta eraso asko isilaraziko dituelako».

Inaugurazioaren aurteik Tolosako Aste Zaharretako kaleak igarotzen giza katea egin zuten emakumeen indarkeria salatzeke. Dantzaen bidez ere menu bera zaharitu nahi izan zuten, Trianguloen egin zuten flashmobarekin. Tolosako dantza taldeek parte hartu zuten ekimenan, eta ikasmin handia piztu zuten herritarren artean.

• **Bidea.** Ius larunbatean eginiko flashmobak.



Tumbotiki plazari izena aldatu eta Emakumeon Plaza izena jarri dio Tolosako Udalak. ||



Dantzarako gogoak jende ugari hurbildu zen Triangulora, flashmobean parte hartzen. ||

WALNUT
 Gogorotxategi
 Plaza Zaharra, 7
 Tolosa 20040
 943 89 85 26

Mauka
 GAIURKO EKABITZA
Bi pertsonarentzat gaua eta gosaria.
 Prestioa **60€**
 berria
 www.mauka.eu

Irudia o Irura



INDARKERIA SALATZEKO MILA BIDE

Euskal Herri osoan bezala, eskualdeko hainbat herritan gogoan izan dute aurten ere Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Aurkako Eguna. Ekarretaratzek, hitzalak, antzerkiak, mahai-inguruak, filmak, tailerrak, kirol probak, dantza... askotariko ekitaldiak egin dituzte batean eta bestean —Irudian, Iruran eginko ekarretaratzas— emakumeen aurkako indarkeria salatzeke. ||

ruak, filmak, tailerrak, kirol probak, dantza... askotariko ekitaldiak egin dituzte batean eta bestean —Irudian, Iruran eginko ekarretaratzas— emakumeen aurkako indarkeria salatzeke. ||

Irudia o Tolosa



TITIRIJAI JAIALDIA ABIAN DA

Titirijai Txobongileon Nazioarteko 30. jaialdia hasi da. Topic zentroko erakusketan izan ziren larunbatean antolatutakoak, Tolosako Udaleko ordezkarekin eta

herriarrekin batera, ekimenari hasiera emanaz. Abenduaren 2ra bitarte 12 talderen antzezlanak ikusteko aukera izango da, denera 57 ikusketan. ||

Irudia o Ibarra



BABARRUNAREN FESTA IBARRAN

Hauspoea elkarteak antolatuta, babarrun jatea egin zuten herenegun Ibarraiko Beñabietan pilotalekuan. Hirugarren urtez Babarrunaren Lehaketa Gastronomia

egin zuten, eta Arantxa Rajadok eta Axun Venturerekin irabazi zuten. Gazteboen Sokatira Txapelketa ere egin zuten, eta ondoren, bazkarian bildu ziren. ||

Irudia o Ibarra



SORTU ERATZEKO PROZESUA

Ekier abertzalearen Sortu alderdi berria eratzeke prozesuaren lehen batzarra egin zuten eskualdeko herritarrek —Inudian, Ibarra— iragan larunbatean. Le-

hen batzar horretan oinarri ideologikoak jartzea dute, eta abenduaren 15ean egingo duten bigarrenean, lido politikoduan, Ibarra— iragan larunbatean. Le-

Irudia o kaztegieta



GIRO EDERRA IKASLEEN AZOKAN

DBH 4ko ikasleek, euren gurasoen laguntzarekin, bigarren eskuko azoka egin zuten herenegun. Taloak, pintxoak, bigarren eskuko materiala eta argaizki zahar-

rrak jarri zituzten. Jende ugari gerturatu zen, eta batez ere argazkiek ikasmin handia piztu zuten. Giro polita sortu zen azokaren bueltan herenegun goizean. ||

harpidedun izateak badu saria zozketa

1 **Gorrotxategi sorta**
 Bost turroi sorta
 Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**
 Plaza zaharra, 7, TOLOSA
 Tel.: 943 89 07 27 / 943 85 12 26
 www.gorrotxategi.com

2 **Fronton jateketa**
 Bi laguntzako bazkia edo afora
 Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**
 San Frantzisko Biltokia, 4
 Tolosa
 Tel.: 943 89 29 41
 www.restaurantefronton.com

3 **Berria 2013 agenda**
 Bi agenda
 Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**

4 **Eureka zientzia museoa**
 Bi laguntzako bina sarrera
 Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **54**
 Mikeltegi pasealekua, 43-45
 Tel.: 943 01 24 78
 www.eurekamuseoa.es

Parte hartzeko deliu edo datur: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** (harpidedun kodea, izena, herria, eta zeinekaintzen parte hartu nahi duten guri adierazi) || **hitza**

Kirolak

↓ **Kirol emaitzak**

PILOTA

BINAKAKO ERREMONTE	
TXAPELKETA	
Hirugarren jardunaldia	
Zeberio II.a-Agirrezabala	27
Urriza-Barrenetxea IV.a	40

Sailkapena

1. Oñatz-San Miguel	9 p
2. Uterga-Etxeberria III.a	8 p
3. Urriza-Barrenetxea IV.a	8 p
4. Juaristi-Ion	6 p
5. Zeberio II.a-Aizpurua II.a	5 p
6. Ezkurra-Olazar	0 p

(Uterga-Etxeberria III.ak eta Ezkurra-Olazar bikoteek bi partida bakarrik jokatu dituzte)

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Kadeteak binaka	
Zaz. Iturri 1-Aur. Saiaz 1	8-22
Txapagain-Aur Saiaz 1	12-22

Jubenilak banaka

Oiarpe-Aurrera Saiaz 2	22-3
------------------------	------

Jubenilak binaka lehen maila

Intza-Aurrera Saiaz 1	12-22
Oiarpe-Aurrera Saiaz 2	13-22
Zaz. Iturri-Aur. Saiaz 3	22-6

Nagusiak banaka

Aur. Saiaz 2-R. Sociedad	22-1
---------------------------------	------

Nagusiak binaka 3. maila

Añorga 1-Aurrera Saiaz 3	22-3
--------------------------	------

Nagusiak binaka 1. maila

Igeldo-Aurrera Saiaz 1	22-10
Aurrera Saiaz 2-Ursbil	11-22

Nagusiak binaka ohorezko m.

Aur. Saiaz 2-Zaz. Iturri	22-13
---------------------------------	-------

ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA	
10. jardunaldia	
Laskorain-Tolosala H.	4-4
Ibarra-Sestao	2-2
Egintza T.L.-Bilbo F.S.	1-7

Sailkapena

1. Ibarra	28 p
2. Bilbo CFS	22 p
3. Tolosala Hirukide	21 p
4. Aurrera	21 p
5. Soloarte	19 p
6. Inter Eder Kafetegia	19 p
7. Goierri	16 p
8. Sestao	16 p
9. Laskorain	13 p
10. Santurtzi	13 p
11. Zarautz	12 p
12. Santurtzi	9 p
13. Buruntza	9 p
14. Egintza Transportes L.	7 p
15. Mallabia	4 p
13. Gora	0 p

Hurrengo jardunaldia

Buruntza -Ibarra	
Bilbo F.S. - Laskorain	
Santurtzi - Tolosala Hirukide	
Goierri- Egintza	

FUTBOLA

ERREGIONAL OHOREZKOA	
11. jardunaldia	
Tolosa CF - Touring	3-1

Sailkapena

1. Hernani	30 p
2. Touring	22 p
3. Tolosa	21 p
4. Real Union	21 p
5. Oiartzun	20 p
6. Bergara	19 p
7. Aretxabaleta	17 p
8. Berio	17 p
9. Hondarribia	17 p
10. Lagun Onak	13 p
11. Zarautz	13 p
12. Aurrera	12 p
13. Aloña Mendi	11 p
14. Trintxerpe	11 p
15. Mondragon	9 p
16. Beti Gazte	9 p
17. Urola	9 p
18. Ostadar	6 p

Hurrengo jardunaldia

Aloña Mendi -Tolosa CF	
------------------------	--

SOKATIRA

GOMA GAINEKO EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA	
320 kilotan, finala	
1. Abadiño B	6 puntu
2. Sokarri	5 p
3. Ibarra A	4 p
4. Ibarra B	2,5 p
5. Abadiño A	2,5 p
6. Napurrak	1 p

SASKIBALOA

LEHEN MAILA	
9. jardunaldia	
Bide Bide Donosti	69
Fundacion 5+11	37

Sailkapena

1. Seky.es	8-1
2. Lizuan.com	7-2
3. Tabirako Baque	6-3
4. Mondragon Unib.	6-3
5. Atletico Sn Sn	6-3
6. Padura	5-4
7. Askartza	5-4
8. Mikeldi	5-4
9. Bide Bide Donostia	4-5
10. Servical La Peña	4-5
11. PFERD Araberri	4-5
12. Biok Zerbitzuak	3-6
13. Leihoak Zarautz	3-6
14. Lagunak	3-6

Hurrengo jardunaldia

Seky.es - Bide Bide	
---------------------	--

SENIOR MUTILAK

Astigarraga - Take Orbela	45-52
---------------------------	-------

Hurrengo jardunaldia

Take Orbela - Goierri Verkol	
------------------------------	--

SENIOR NESKAK

Eskoriatza - Take Aralar	69-41
--------------------------	-------

Hurrengo jardunaldia

Take Aralar Kirolak - Andraitz	
--------------------------------	--

JUNIOR MAILA

Bide Bide Donosti	53
Easo A	65
Take Belate	40
Luberri Askatuak 2	30
Saskiaxular	51
Inpernu Take	45
Arri BKL	48
Take Aralar Kirolak	52

Laskorainek 4-4 berdindu du Hirukide Tolosalaren aurka

Tolosako bi taldeen arteko neurketa oso borrokataua izan da; Ibarrek berdindu egin du eta Egintzak galdu

Gorka Amatrain/Erredakzioa

Beste behingoz eta eskualdeko areto futbolak bizi duen osasun onaren seinale, txantxarako lekuri lagatzen ez duen Hirugarren mailak aruten eskainiko dituen derbi anitzen arteko beste aurrez-aurreko talka bat baimendu zuten joan den larunbatean Usabalgo kiroldegian Laskorain K.E. eta Tolosala Hirukide taldeen esku-tik.

Hirukidekoak sekulako denboraldia betetzen ari dira eta saikalapeneko bigarren postuan zirelarik eman zioten hasiera neurketari, Aitorren mutilen bidean kolore eta forma guztietako zailtasunak aurkituko zirenen zurtasuna bermaturik zegoen eta kontzentrazioz beterik ekin ezean, porrota jasotzeko aukerak erabatekoak izango ziren.

Lehen minutuen jabetza Tolosalakoena izan zen ezbairik gabe, baina Endikaren geldituek markagailua berean mantendu zuten eta filialeko Zumetak birritan as-

matu ostean 2-0 aurreratu ziren etxeokoa estreinako sentsazioei itzulipurdia emanaz. Aurkariak alde murriztu arren Alonsoren sareratzek 3-1eko ipini zuten elektronikoan, baina atsedendialdiaren aurretik berriro estutu zen markagailua, aldageletarako bidean 3-2ko zirraragarri batek aukera guztiak airean mantentzen zituelarik oraindik ere.

Bigarren zatian Hirukidekoek ondo eramandako kontraeraso bati bukaera emanaz. Hurrengo minutuek abagune ugari eskaini zituzten, eta horitxoek atezain jokalariekin ere saiakeraren bat edo beste egin arren, emaitzak zurrin irau zuen amaiera arte.

Etxebe eta Jonikoren baja garrantzitsuak jasanagatik ere, maila ona ematen jakin zuten Laskorainek bere zaletuen aurrean, beste behingoz bigarren taldean isiltasunez eginiko lan paregabea bere fruituak loratzen ari da eta horren erakusgarria da bai Zumeta eta bai Vazquezek azalduko maila.

Datorren astean Bilbora bi-

daiatu beharko dute ikastolakoek Bilbo C.F.S-ren aurka jokatzeko, denboraldi bikaina betetzen ari dira bizkaitarrak eta sailhestu beharreko oztoko korapilatsua izango da ezbairik gabe.

Larunbatean, Usabalen, Laskorain taldearen aldetik, Javi delegatua, Javi coach manager-a, Aitor entrenatzailea, Endika, Gil, Murgi, Ekhi, Vazquez, Zumeta, Beloso, Telleria, Alonso eta Sara legi izan ziren. Laskoraingo bigarren taldeari dagokionez, Santxoren taldeak 4-3 galdu zuten Zurt tabernaren aurka.

Ibarrek berdinketa

Saikalapeneko lehen postuan dagoen Ibarrek ligako lehen berdinketa egin zuen asteburuan. Orain arteko bederatzit partidak irabazi ostean, hamargarrenean bina berdindu zuen Sestao taldearen aurka. Lider sendo jarraitzen du Ibarra taldea, 28 puntu batu baititu hamar partidetan.

Emaitza txarra Egintzarentzat

Villabonako Egintza taldeak ez du asteburu ona izan, 1-7koa jaso baitzuen etxean. Bilbo F.S. taldearen aurka galdu du, saikalapeneko bigarren dena. Horrenbestez, saikalapeneko 14. postuan dago Villabonako taldea, hau da, azken hirugarrena.

Ibarra bi taldeak hirugarren eta laugarren, sokatira txapelketan

Ibarra A hirugarrena izan da eta Ibarra B hurrengo postuan, goma gaineko Lauko Euskal Herrikoan

I. Garcia Landa Ibarra

Hirugarren eta laugarren geratu dira Ibarra bi taldeak gizonen 320 kiloko goma gaineko Lauko Euskal Herriko Sokatira txapelketan. Ibarra A-k lortu du hirugarren postua eta Ibarra B-k hurrengoa. Abadiñok bigarren urtez erreskadan irabazi du txapelketa. Horrenbestez, azken bost urteotan lau txapel jantzi dituzte abadiñoarrek. Sokarri izan da txapeladunordea, iaz bezala.

Abadiñon jokatu da txapelketa eta ondorengo sei talde lehiatu dira: Sokarri A (Arrigorriaga, Bizkaia), Abadiño A eta Abadiño B (Abadiño, Bizkaia), Ibarra A eta

Ibarra B (Ibarra, Gipuzkoa) eta Napurrak (Ezpeleta, Lapurdi). Finalerako saioaren hastapenean neurtu dituzte indarrak Abadiño B txapeladunak eta Sokarri txapeladunordeak. Bi tiraldi borrokatu jokatu ondoren, abadiñoarrek bereganatu dituzte arratsaldeko lehen hiru puntuak. Bien arteko txanda horrek izan du gerora eragina. Izan ere, Abadiño B-k tiraldi bat galdu du Ibarra A-ren aurka.

Bestalde, finaleko ligaska jokatu ondoren, Ibarra B-k eta Abadiño A-k kitarakoa jokatu behar izan dute, eta ibartarrak gailendu dira.

Saikalapena, beraz, ondokoa izan da: 1. Abadiño B (Abadiño, Bizkaia), 6 puntu (13 tanto); 2. Sokarri (Arrigorriaga, Bizkaia), 5 puntu; 3. Ibarra A (Ibarra, Gipuzkoa), 4 puntu; 4. Ibarra B (Ibarra, Gipuzkoa), 2,5 puntu; 5. Abadiño A (Abadiño, Bizkaia), 2,5 puntu; 6. Napurrak (Ezpeleta, Lapurdi), puntu 1 (0 tanto).

Leire Olaberria ikaztegiatarra lehen postuan, Gipuzkoako Pista Sarian

I. Garcia Landa

Gipuzkoako Pista Saria jokoan da, eta asteburuan hirugarren jardunaldia jokatu dute. Jardunaldi horren ondoren, emakumezkoetan lehenengo postuan dago Leire Olaberria ikaztegiatarra (Fullgas.org) 63 punturekin; bigarrena da Ane Iriarte billabonatarra (Limousin) 54 punturekin eta Maddi Amondarain (Limousin) hamaikagarrena da 20 punturekin.

Junior mailan, mutiletan, Limousin taldeko hiru txirrindulari ari dira: Xabier San Sebastian (6.a), Jon Irisarri (7.a) eta Andoni Mateos (19.a). Kadete mailan, berri, Limousin taldeko bost txirrindulari ari dira parte hartzen: Aitor Irazu (7.a), Asier Arozena (16.a), Jon Gorostidi (24.a), Jokin Odriozola (25.a) eta Aitor Zurdo (28.a).

Perurena: «Hurrengoa beste era batera behar du izan urduritasuna gutxitzeko»

Bi aldiz ahalegindu zen Inaxio Perurena leitzarra 300 kiloko harria jasotzen marka berrirako ahaleginean

Imanol Garcia Landa Leitza

Inaxio Perurena leitzarrak ezin izan zuen 300 kiloko harria bizkarrean berdindu igandean. Bi aldiz ahalegindu zen harri jasotzailea, baina bietan harriak irabazi zion. «Urduritasunarekin, nahiko gaizki pasatu nuen, baina banekien hori gertatzea zegoela eta, orain, aurrera segi beharra dago», esan du Perurenak. Hurrengo ahalegina beste modu batera planteatu beharko duela dio: «Herrian, zegoen giroarekin, jaialdia... , presio handia nuen. Aurrera begira, entrenamendua egin eta ikusten badut beste ahalegina egiteko moduan nagoela, herriko plazan egingo nuke, nik bakarrik, jendea nahi duenak etorrita. Beste modu batera planteatu behar dut urduritasuna gutxitzeko. Harria jasotzeko halterofiliako bota batzuk nituen, eta aldageletan kaleko botak jantzi nituen. Oso urduri nengoen, nahastuta. Azkenean, marka egiten gozatu beharrean, urduritasunarekin egun txar bat pasatzen ari nintzen. Beraz, beste modu batera planteatu behar dut», dio. Ahal bezain laster saiatu nahi du berriro.

Lehenengo saiakeran harria berdintzeko puntuan zegoela dio Perurenak: «Hiru kolpe eman nizkion eta berdintzeko puntuan zegoen. Lehenengo kolpea eman nionean, bi pauso txiki eman nituen atzera, balantza pixka bat egin nuen, eta hirugarren kolpean harriak aurrera egin zuen asko, eta hantxe oreka galdu zuen harriak. Bestela, harria berdintzeko puntuan nengoen».

Bideoak ikusi eta gero, Perure-



Inaxio Perurena, 300 kiloko harriarekin ahalegin betean. JONE AMONARRIZ

nak uste du lehenengo saiakera hori azkarrago eten behar zuela: «Bigarren ahaleginean, lasaigo nengoen lehenengoan baino. Hotzean pentsatuta, lehenengo ahaleginean, kolpea eman eta balantza txiki hori izan nuenean, bota egin behar nuen harria eta bigarren goan saiatu. Baina, une horretan, hori pentsatu beharrean, harria gora eta gora eramaten saiitzen zara eta... Lehenengoan, hiru kolpe eman, eta aguantatzen, hortzak estututa ezpainak eta denak minberatuta, bigarren gorako bizitasuna bajatuta gelditu nintzen».

Bigarren saiakeran, indar gutxiago izan arren, ahalegina ona izan zela dio harri jasotzaileak:

«Harria atera eta bueltatu nahiko ondo egin nuen. Bi kolpetan arnasa kontrolatu egin behar izaten da. 300 kilo bular gainera eramaterakoan, ezin duzu arnasarik hartu; eta hori gertatu zitzaidan, hustu eta harria bularrean behar sartu zitzaidan eta orduan ezin da altxatu».

Entrenamendu oso onak eginak zituen. «Hilabetetan zaude entrenatzen, eta harriarekin entrenamendu oso onak egiten dira eta tartean txarrak ere ateratzen dira. Plazako egunean ona edo txarra atera daiteke, eta igandean ez zen hain txarra izan, baina ez genuen berdintzea lortu», dio Perurenak, eta gaineratu: «Gerritik atera eta gaizki kolokatu duzula-

ko, gerritik tira gabe gelditu daiteke harria. Eta gutxienez, ikusleak ikusi zuen lehenengo ahaleginean 18 segundotan aritu nintzela, eta gero suspertu eta bigarren ahaleginean bazihoan gora, eta jendeak tentsio hori bizitu zuen, eta alde horretatik lana eginda eta gustura gelditu nintzen. Gaizki kolokatzera gertatu daiteke, eta azkenean nekatu gabe zaude, ezin duzu berriz beste ahaleginik egin denbora pasatu delako, eta ikusleak gogoarekin gelditzen dira, 'zer pasatu da hemen' esanez». Mezu asko jaso dituela esan du Perurenak, animoak emanez eta emozionatu egin zirela esanez, eta babes hori gustura jasotzen dela dio.

Bengoetxeak abenduaren 9an jokatu du Olaizolaren aurkako finala

I. Garcia Landa Leitza

Lau t'erdiko txapelketako finala ez da jokatu, iragarri zuten bezala, abenduaren 2an, hil bereko 9an baizik, antolatzaileek jakinarazi dutenez. Aimar Olaizola, Olaizola II.aren enpresa den Asegarcetek atzerapena eskatu ondoren hartu dute erabakia. Bizkarreko minarekin da Olaizola. Oinatz Bengoetxea leitzarrak beste aste bete izango du, beraz, finala prestatzeko.

Olaizolak herenegun jokatu zuen txapelketako finalerdia, Juan Martinez Irujoren aurka, eta partidaren bukaeran esan zuen bizkarreko arazoak dituela. 22-18 irabazi zion finalerdia. Oinatz Bengoetxea leitzarra izango du aurkari finalean, Gasteizko Ogetan.

Jon Jaunarena leitzarrak jokatu behar duen promozioko finala ere aste bete atzeratu da, eta, beraz, abenduaren 8an jokatu du.

Zeberio eta Agirrezabalak 27-40 galdu dute erremonteko partida

I. Garcia Landa

Eskualdeko bikoteak ez zuen garaipena lortu Erremonteko Bina-kako Txapelketan. Aizpurua II.ak ezin izan zuen jokatu eta Zeberio II.aren bikotekidea Agirrezabala izan zen. Hauek 27-40 galdu zuten Urriza eta Barrenetxea IV.aren aurka. Orain, Zeberio eta Aizpurua bost puntu dituzte. Azken hau hurrengo jardunaldirako osatuko da.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Eneritz Maiz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaundi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

AHTaren «iruzurraren» berri eman du asteburuan, Mugitu-k

Desobedientzia zibileko mugimenduak baraualdia eta beste hainbat ekitaldi egin ditu Tolosaldean

Rebeka Calvo Tolosa

AHTaren kontrako Mugitu desobedientzia zibileko mugimenduak hainbat ekitaldi egin ditu asteburuan, Tolosaldean. Taldeak baraualdiak antolatatu ditu Euskal Herri osoan, eta eskualdeko txanda ere izan da.

Ostegunean iritsi zen baraugile taldea Tolosaldera. Lehenik eta behin Adunara joan ziren, Antzibar iturrira, eta ondoren, tren lasterraren lanen inguruan ibilaldia egin zuten. Bertan, Zizurkil eta Aduna artean hasi dituzten lanak eta ondoan zabortege moduan erabiltzeko asmoa duten Miravallesko mehategi zaharrean egiten ari diren lanak ikusi zituzten.

Hori bukatuta, Villabonan, LAB eta ELA sindikatuarekin batera AHTaren lan baldintzei buruz-



Trianguloan, larunbatean, topa egin zuten lekukoa pasatzerakoan. I.T.

ko mahai ingurua egin zuten. Sindikatuek langileek dituzten soldata baxuak, lanaldi luzeak eta segurtasun neurri eskasak berri eman zuten, besteak beste.

Ostiralean arratsaldean izan zituzten ekitaldiak; lehenengo Anoetako Gaztetxean bildu ziren, eta ondoren, *Eskubideak izateko eskubidea* tailerra egin zuten. Amaitzean abeslari batzuk izan ziren Gaztetxean.

Larunbatean bukatu zuten Tolosaldeko ordezkariak baraualdia, Tolosako Trianguloan. Egu-

na EHNEko teknikari den Pedro Alberdiren hitzaldi batekin hasi zuten *Elikadura burujabetza* eta ondoren, Gipuzkoako baraugileek Lurmalko izeneko lekukoa eman zieten Nafarroatik iritsita-ko kideei. Ondoren, ur topa egin zuten. Nafarrek bidean Ertzaintzaren kontrola izan zutela ere salatzen zuten.

Eguna Kantukantoi taldearen emanaldi batekin eta ipuin kontaketa batekin amaitu zuten, eta ondoren, salda ere banatu zuten.

Agenda

DEIALDIK

- **Larraul.** Kultur Astearen barruan, gaur, 19:30ean, *Belarriak soinu* hitzaldia, Joseba Tapiaren eskutik, kultur etxean.
- **Amezket.** Gaur 19:00etan, erabilera anitzeko gelan, bilera egingo dute kultur astearen balorazioa egiteko.
- **Tolosa.** Alkoholiko Anonimoen Uzturre taldearen bilera irekia, gaur, 19:30ean, Corpus Kristi parrokiako lokaletan.
- **Tolosa.** Pirritx eta Porrotx palazoak, gaur, Bonberenean, 17:30etik aurrera.


TXOTXONGILOAK

- **Tolosa.** Titirijai jaialdiaren barruan, gaur, ikasleentzako emanaldiak 11:00etatik 14:00etara: Leidor aretoan *La cenicienta y los zapatos de cristal* (Luna Teatro Danza); Topic zentroan *La Odisea* (Bihar taldea); eta kultur etxean *Mago por casualidad* (Teatro de la plaza taldea).



ERAKUSKETAK

- **Alegia.** Jose Luis Albisuren margolanak, erretiroadun ta-bernan.
- **Larraul.** Koldo Jauregiren aho soinuaren bilduma, museo etnografikoan, eta Karmele Pellejororen margolanak, herriko ostal-toran.



- **Ibarra.** Felix Urrestarazuren margolana, kultur etxean.
- **Tolosa.** Mariona Masgrauren lanak Topic zentroan eta Guatemalako Ixil eskualdeko emakumeen inguruko erakusketa, Aranburu jauregian.

Agurak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

●●●●● **agurrak**

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Bronte, C. I. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.


Sartu gure webguneetan

tolosaldea.hitza.info
leitzaaldea.hitza.info
villabona-aiztondo.hitza.info
alegialdea.hitza.info
tolosa.hitza.info
anoetaldea.hitza.info
ibarraldea.hitza.info

Jarraitu albisteak
Twitter bidez
[@hizatolosaldea](https://twitter.com/hizatolosaldea)



hitza info



Tolosaldeko eta Leitzaaldeko Hitza orrialdeari eman "atsegin dut"

